

INMA GOMILA: "EKINTZAILE IZAN NAHI DUEN GAZTE GUTXI DAGO, ETA HORIEN ALDEKO APUSTUA EGIN BEHAR DA"




"Informazioa bereizteko dugun teknologia hau, gaur egun, merkatuan direnen artean onena da, eta gainera, badu abantaila gehigarri bat ere, hots, plataforma askotarako dela baliagarria"

Diana Teknologia Oiartzunen kokaturiko enpresa da, eta informazioa kudeatzeko eta komunikatzeko teknologia eta softwarea egiten aritzen da. Konpainia honek teknologia propioa garatzeko joera garbia du, baita lengo-
aia naturalaren prozesatze-esparruan, indexazio multidimentsionalaren
esparruan zein komunikabideak Internet bidez optimizatzeko esparruetan
produktu berritzaileak sortzeko joera garbia ere. Enpresa honek bere giza
baliabideen %70 bideratzen du berrikuntza teknologikora, eta teknologia pro-
pioaren inguruko ikerketa eta garapena dira bere bilakaeraren oinarria.
Berrikuntzaren alde egin duen apustuak, era berean, ondorengo premisak
ditu oinarri, Inma Gomilak, enpresako gerenteak, azaltzen duenez.
*"Oinarrizko teknologiak garatzea etorkizunean bestelako aplikazio batzuetar-
rako aukera emango lukeen hazkunde handia aurreikusten den arloetan; bi*



arlo, informatika eta hizkuntzalaritza, bateratzen dituen lana; sortu berriak eta berritzaileak diren teknologiak sustatzeak dakartzan arriskuak onartzea, eta beste arloetako adituekin lan egiteko zaletasuna, horrek egitura malgua mantentzeko eta merkatuko eskaera-aldaketan aurrean trebeak izateko aukera ematen baitigu".



Diana Teknologiak merkatuan hartu duen tokiak funtsezko bi gauzatzeko dituen oinarriak: DIB produktuak eta XerKa soluzioa.

DIB produktuekin, Diana Teknologiak erantzun ematen dio informazio-bolumen handien osoko bertsio berriak helarazteko beharrari, eta gaitasun handi baten orain artean enpresek gai honetan aurkitu ohi zuten funtsezko eragozpena: komunikatzeko lineek horretarako behar adinako gaitasunik ez izatea. *"Igorritako azken kopiarekiko ezberdintasun bitarrak ateratzen ditugu eta sortutako aldaketak bakarrik helarazten ditugu"* azaltzen du Inma Gomilak. *"Esate baterako, 200 MBeko fitxategi bat edo 20 gigako datu-base bat aldatzen badugu, ez ditugu urruneko makinara berriz ere 200MBak osorik igortzen artxibo horren kopia edukitzeko, aldatu diren biteak baino ez ditugu bidaltzen. Hau da gure teknologiak eginiko ekarpenaren muina; igorri beharreko bite-kopurua ahalik eta gehien murriztea, internet bidezko gigen eta informazio-gigen errepika egingarria bilaka dadin. Azken produktu gisa aplikatzen dugun babeskopia online egiterakoan, zerbitzarien sinkronizazioan, hainbat bezerori adabakiak banatzerakoan eta abar". Informazioa bereizteko dugun teknologia hau, gaur egun, merkatuan direnen artean onena da, eta gainera, badu abantaila gehigarri bat ere, hots, plataforma askotarako dela baliagarri (Windows, Linux, Unix eta abar). Munduan ez da inor, gaur egun, ezaugarri hau duenik".*

XerKa, berriz, informazio-sistema eleanitza da, eta sarean informazioa bilatzeaz, aztertzeaz eta edukiaren arabera sailkatzeaz arduratzen da. *"Zainketa-sistema gisa"*, adierazten du Inma Gomilak *"enpresa mailako erabaki estrategikoak hartzeko beharrezko informazioa eskaintzen die erabiltzaileei, eta erakundeei aukera ematen die informazioa bilatzen ez ezik informazio hori esplotatu eta berriz erabili ahal izateko behar bezala sailkatzen eman beharreko denbora eta ahalegina aurrezteko ere. Dokumentu-kudeatzaile gisa, enpresaren dokumentu-basea sailkatzeko eta indexatzeko aukera ematen du dinamikoki eta*



hainbat irizpideren arabera". Prozesu konplexu hau gauzatzeko, hainbat teknologia hartzen du barne sistemak; lengoia naturala prozesatzeko erremintak nabarmentzen dira horien artean, eta dokumentuen edukia aztertzeko eta datu-basea alderdi ugariaren arabera indexatzeko erabiltzen dira.

- Nola sartzten da merkaturan hain ezaugarri zehatzak eta konplexuak dituen produktu bat?

- Badakigu DIB balore-erreminta bat dela, ezin hobeki funtzionatzen duela eta kalitateari eta prezioari dagokionez lehiakideek (ia guztiak iparramerikarrak) ez dituzten ezaugarriak dituela. Behar duguna bezeroek errealitate hau uler dezaten da, Espainian bai baita oraindik ere Amerikako Estatu Batuetatik datorren guztia ona dela eta etxean egiten dena hain ona ez dela pentsatzeko joera. Hori egia ez dela sartu behar zaigu buruan. DIBa sartzeko, partner-ek osaturiko nazioarteko sarea sortu dugu. Hasiera-hasieratik izan genuen garbi sare bidez egin behar genuela salmenta eta gure egiaztapena zuten partner-ek osaturiko sare tinko eta orekatua sortu behar genuela. Gu ez gatzai azken kontsumitzaileari zuzentzen. Gure egiaztapena duten partner-en bidez, hau da, babeskopia-soluzioetan, memoriaren esparruan eta komunikazioetan aditu diren enpresen bidez hurbiltzen gatzai gu beti bezeroari. Horregatik, guretzat ezinbestekoa da 'partner egiaztatu' hauei behar bezalako zerbitzua eskaintzea, teknikoki zein komertzialki arreta eskainiz, heziz eta euskarria eskainiz. 'Partner-ak' beti gauzka oso hurbil, eta hau da Diana Teknologiak gure lehiakide diren multinazionaletikiko duen abantaila handia.

Xerkarekin oso ezberdina da merkatura hurbiltzeko erabiltzen dugun modua. Klusterretara, teknologia-zentroetara, elkarteetara, OTRISetara... hurbiltzen gara, Zainketa Teknologiko/Adimen Lehiakorreko zerbitzu espezializatua eskaintzeko asmoz edo hauen bezero/bazkideentzako proiekturen bat garatzeko. Lehen aldi batean, soluzioa ezartzeak bezeroaren behar bereziei arreta eskaintzea dakar berekin beti. Enpresak, izan ere, bere interes-esparrua zein den erabaki behar du, hau da, zer den zaindu nahi duena. Sarritan, espezializatutako aholkularitzekin aritu ohi gara elkarlanean, eta aholkularitza hauek, era berean, Xerka soluzioa aholkatzeko lana egiten dute merkataritzaren esparruan.

'Partner-ak' beti gauzka oso hurbil. Hau da Diana Teknologiak duen abantaila handia.




- Nola sortu zen produktu-mota hau egitera bideratutako enpresa bat abian jartzeko ideia?

- 2001. urtean hasi zen guztia. Ziur geunden, ideia onekin eta lan askorekin, posible izango zela softwarearen garapen ezberdinetan oinarritutako hainbat produktu teknologiko eskainiko zuen

enpresa abian jartzea. 2001. urte amaieran, enpresa-idea onenaren Toribio Etxeberria saria irabazi genuen, eta sustatzen ari ginen proiektuak etorkizuna zuela sinestarazi zigun horrek. Bere garaian Bic Berrilanekin hartu-emanak izan bagenituen ere, erakunde honekiko harremana, nahiz eta oso positiboa izan, gutxienezkoa izan zen, guk ordu-rako negozio-plana garatuta baikenuen eta oso zehaztuta baikenuen enpresa-proiektua. Oarsoaldearen bidez konpainiarentzako lehen lokala lortu genuen, eta gero beste instalazio batzuetara aldatu baginen ere, beti izan dugu garbi Diana Teknologiaren inbertsio handiak ez zirela nagusiki ondasun higiezinetara bideratu behar, baizik eta pertsonetara nagusiki.

- Osagai teknologikoak zure enpresan hainbesterainoko garrantzia izateak, eragin garrantzitsua al du konpainiaren barne-antolamenduan?

- Erabateko eragina du. Gure enpresan ez da prozesu definiturik, ezta mekanikorik ere. Hemen, zenbaitetan, ezerez erabatekoena hartzen dugu asmatze-lanerako abiapuntu eta, horregatik, sorkuntza, malgutasuna eta talde-lana oso garrantzitsuak dira. Diana Teknologian lan egiten duten pertsonarik gehienak gaitasun handiko doktore eta lizentziatuak dira, eta adi egon behar da beti motibatuek egon daitezen eta taldeak ongi funtziona dezan. Profesionalak oso diziplina ezberdinetatik datozela ere kontuan hartu beharreko beste elementu garrantzitsu bat da. Hemen, hizkuntzalariak, informatikariak, matematikariak, telekomunikazioetan adituak eta abar dauzkagu. Baina, elkarrekin egin



behar dute lan guztiek, nahiz eta badakiten, zenbaitetan, egitura mental ezberdinak dituztela ere.

- Zein izan ziren enpresa-proiektua abian jarritako lehen unetan gainditu behar izan zenituzten arazo nagusiak?

- Hasierako aldian, gainditzen zailena izan zen eragozpena proiektuaren finantziarioa izan zen. Enpresak zuen gaitasun ekonomikoa konpainiaren sorkuntza sustatu genuen bi pertsonok genituen baliabideek eta hurbileko hainbat pertsonaren ekarpenek osatua zen soilik.

- Zein laguntza izan zenituzten une hartan?

- Neotec Ekimena, enpresa teknologikoak sortzeko eta finkatzeko plataforma, oso garrantzitsua izan zen guretzat. Onartu egin zuten gure proiektua, Euskal Herrian onartutako lehen Neotec proiektuetako bat izan zen, eta oso laguntza garrantzitsua izan zen 300.000 euroko fondoak eman zizkiguten. Babes honekin, eta Euskal Herriko Arrisku Kapitaleko Erakundearen ekarpen batekin, jarri zen abian, ikuspegi ekonomikotik, Diana Teknologia.

Inma Gomilak azaltzen duenez, enpresaren bidea, oinarri teknologikoko enpresa gisa, luzea izan zen; oinarrizko teknologia garatu zenetik merkaturatzeko moduko azken soluzio gisa osatu eta pixkanaka merkatuan sartzen hasi zen arte. *"Kontuan eduki behar dugu gure produktuek ez diotela merkatuaren eskaerari erantzuten, merkatuaren behar bati baizik. Zenbaitetan, erabiltzaileak badaki behar bat duela, baina ez daki horrentzako erantzunik ba denik. Prozesu konplexua da, denbora asko igarotzen baita jendeak eskaintzen ari zataizkion hori zer den ulertzen duenetik produktuan inbertitzea erabakitzen duen arte. Gainera, ezin ahaztu dezakegu, DIB produktuaren kasuan, beti ari garela teknologia amerikarrekin lehian. Horregatik, marketing-ahalegin oso handia egin behar duzu beti. Merkatuan sartzea beti da zaila.*

Inma Gomilaren iritziz, Gipuzkoa ez da oinarri teknologikoko enpresa berritzaileak abian jartzeko bereziki gune pribilegiatua, industria-

"Sorkuntza, malgutasuna eta talde-lana oso garrantzitsuak dira gure enpresan"




enpresei oso emaniko lurraldea baita. *"Arrisku-kapital gutxi dago, adibidez, eta bestalde, finantza-sektoreak betiere arriskugarria den abenturatzat du enpresa-mota hau. Ez du ikusten tinkoa eta aurrera jarraitzeko aukerarik ematen duen zerbaiten gisa. Burdinaren gizartean gaude, eta ez gara oraindik hortik atera. Honek esan nahi duenez, eragile ekonomikoek ez dituzte oraindik guztiz ulertzen oinarri teknologikoko enpresei dagozkien baterakuntza-prozesuak. Oro har, mota honetako edozein enpresak produktua garatzen eta merkatuan sartzen ematen ditu bakar-bakarrik bere bizitzako lehen lau edo bost urteak. Ondoren, enpresan hazkuntza txiki bat gertatzen hasten da, eta prozesu honetan lau edo bost urte igaro direnean bakarrik gerta daiteke salmenta-leherketa. Prozesu hau aldaezina da eta ez dago oinarri teknologikoko enpresak garatzeko beste modurik. Dena den, gogoratu beharreakoa da behin finkatutakoan, oinarri teknologikoko enpresek hazteko gaitasun handia dutela. Baina, nire irudiz, hau ez da guztiz ulertzen gure esparru sozioekonomikoan.*



- Zein egiteko bete dezakete erakundeek gauzen egoera hau aldatzeko?

- Zenbait gauza Administrazioetik beretik ari dira ongi egiten. Bic Berrilan, adibidez, oso ongi ari den erakundea da, batez ere ekintzaileei beren negozioaren enpresa-esparruan laguntzeari dagokionez. Nire ustez, funtsezkoa da proiektuaren hasierako finantziazioaren gain laguntza ematea ekintzaileei. Arrisku-kapitalak erantzun egin behar du. Bestalde, garrantzitsua da erakundeek gazteen espiritu ekintzailea zaintzea, gero eta urriagoa den funtsezko ondarea baita hau. Atentziora ematen dit gazte jende askok ez duela ekintzaile izateko interes apurrik ere, eta enplegua bilatzera eta horren truke soldata bat jasotzera mugatu nahi dutela. Gutxi dira ideia baten aldeko apustua egiteko eta





aurrera jotzeko gai diren pertsonak. Pertsona hauek gabe ez da enpresarik sortzen eta, horregatik, zaindu eta mimatu egin behar dira ezinbestean.



- Zein dira enpresa bat abian jartzeko prozesuko punturik erabakigarrienak?

- Batetik, produktuaren garapenean arraska teknikoa lortzea, teknologia berri batean lanean hasten zarenean bai badakizu non hasi zaren eta zer lortu nahi duzun, baina ez baitakizu lortuko ote duzun. Aurrean aipatu dudan bezala, oso konplexua den beste alderdi bat finantziarioarena da.




- Zure iritziz, zer da enpresa bat abian jartzeko esperientziak duen alderdirik positiboena?

- Zure proiektua aurrera eramaten ari zarela eta, pixkanaka-pixkanaka, partner-ak eta lankideak ere proiektuaren parte bilakatuz doazela, merkatuan tokia har dezagun apustu eta lan eginez. Oso asebetetzen zaitu, halaber, bezeroek egiten dituzun produktu horiek balioetsi egiten dituztela, erabili egiten dituztela eta eguneroko egitekorako erabilgarri zaizkiela frogatzeak.

- Eta negatiboena?

- Une txarrak dira gauzarik okerrena, merkatuan izango den erantzunari eta epeen presioari buruzko ezjakintasuna. Azken batean, makinak martxa har dezan eta engranaje guztiek behar bezala jardun dezaten lortzea.

***"Diana
Teknologiak bere
produktuentzako
eskaera sortu
behar du"***



Tokia: Oiartzun

Web orria: www.diana-tek.com

Jarduera Nagusia: Informazioa kudeatu
eta komunikatzeko irtenbide berritzaileak.

Tlfn: 943492308

E-mail: diana@diana-tek.com

Web: www.diana-tek.com

Helbidea: [Astigarragako Bidea, 2](#), 4º 1-D
20.180 Oiartzun

Arduraduna: [Inma Gomila](#)